

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**158/2020 Foru Agindua, uztailaren 20koa, interes publikoa aitortzen diona Telefónica SAUK sustatutako proiektuari, Banda Zabalaren Belaunaldi Berriko Sareak zabaltzeko programaren barruan, zuntz optikoa instalatzeko Okinan, Bernedoko lurzoru urbanizaezinean**

Telefónica SAUK hirigintza lizentzia eskatu dio Bernedoko Udalari Okinan zuntz optikoa instalatzeko (2019/7772810/1 erreferentzia duen proiektua), udalerrian banda zabala sortzeko sare berriak hedatzeko programaren barruan. Horretarako, komunikazioa egin behar da, L531 P-70 posterearen (A-4133 errepedeko 13+750 KP, nekazaritza bidearen ondoan) eta P-72 posterearen (Okinako Piruleta kaleko 32 zenbakiaren aurrean) arteko kanalizazioaren bidez. Lubakia gaur egun lurperatuta dauden eta herri hori A-4133 errepedearen paraleloan hornitzen duten kobrezko kableen ondotik igarotzen da.

Proiektua kanalizazioa (1.328 metro) gauzatzean datza. Horretarako, 40 mm-ko PEAD tritubo bat instalatuko da zanga batean lurperatuta, eta aireko gurutzatze berriak egingo dira A-4133 errepedean, 10+050 KP, 11+950 KP, 12+289 KP, 12+350 KP eta 12+850 KPetan dauden posteen azpiegituraren gainean.

Bernedoko Udalak espedientea bidali eta proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetzeko eskatzen du, lurzoruaren eta hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen parte da proiektu teknikoaren kopia bat, bai eta udal arkitektoak egindako txostena ere, non jasotzen baita zanga bat eginez gero telekomunikazioak hirigintzaren Okinako herrigunera bideratzeko, 6., 7. eta 8. eremuetako lurzoru urbanizaezinetik igaro beharko litzatekeela, bai eta "Errepideak Babesteko Zona" PC zonatik ere. Udal txostenak berariaz jasotzen du aipatutako eremu guztietan onartuta daudela onura publikoko eta interes sozialeko instalazioak eta azpiegiturak, baldin eta landa ingurunean kokatu behar badira, izaera jakin bateko jarduerak garatzeagatik, eta jarduera horiek ezinbestean lursail hartzaileari lotuta egon behar badute arrazoi zientifiko, topografiko edo antzekeengatik, edo lehen mailako baliabideen ustiapenari zerbitzua eman behar badiote. Hala zehazten da Bernedoko Udal Plangintzako indarreko Arau Subsidiarioetako 137. artikuluan ("zona bakoitzean baimendutako erabilerak eta jarduerak").

Proiektuaren kokapen geografikoa kontuan hartuta, egiaztatu da ES2110015 "Gasteizko Mendi Garaiak" kontserbazio bereziko eremuko babes eremu periferikoan dagoela, zeinaren izendapena Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 21eko 148/2015 Dekretuaren bidez onetsi baitzen. Ondoren, maiatzaren 10eko 74/2016 Dekretuak aurrekoa aldatu zuen II. eranskinari dagokionez, non jasotzen baitira araudia, kontserbazio helburuak eta jarraipen plana.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 19ko 472/2016 Erabakiaren bidez, Gasteizko Mendi Garaiak KBEaren gidalero eta neurrien behin betiko dokumentua onetsi zen. Espazioaren organo kudeatzailea da Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Natura Ondarearen Zerbitzua. Eskaera Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari helarazi zaie, jakinaren gainean egon daitezen.

2020ko apirilaren 21ean, Natura Ondarearen Zerbitzuak aldeko txostena eman zuen, baldin eta txostenean ezarritako babes neurri edo neurri zuzentzaile batzuk betetzen baziren.

## OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunetz jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Ekainaren 1eko 108/2020 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onepena ematea eta jendaurrean ipintzeko 20 eguneko epea hastea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 2020ko ekainaren 10ean egin zen, 65. zenbakian. Horretarako emandako epearen barruan, ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Bigarrena. Proiektuaren interes publikoari dagokionez, Telekomunikazioei buruzko maiaztaren 9ko 9/2014 Legea aplikatu behar da, zeinaren 2. artikulua hau ezartzen baitu: "Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira"; eta 3. artikulua beste hau c) letran, legearen helburu eta printzipioen artean: "Komunikazio elektronikoaren sareak zabaltzea eta zerbitzuak ematea sustatzea, mutur batetik bestera konektibitate eta interoperabilitatea sustatuta, bai eta sarbidea ere, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan".

Aipatutako lege horrek bere III. tituluaren (Zerbitzu publikoaren betebeharrak eta eskubide zein betebeharrak publikoak, komunikazio elektronikoaren sareak ustiatzean eta zerbitzuak ematean), II. kapituluaren 2. atalean, "Komunikazio elektronikoaren sare publikoak hedatzeari eragiten dion herri administrazioen araudia" epigrafearen pean, hau xedatzen du 34. artikuluan: 1... herri-administrazioek... aritu beharko dute lankidetzan, komunikazio elektronikoaren operadoreek jabetza publikoa eta pribatua okupatzeko daukaten eskubidea gauzatzeko helburuarekin, komunikazio elektronikoaren sare publikoak hedatu ahal izateko.

2. Komunikazio elektronikoaren sare publikoek oinarrizko izaera duen ekipamendua osatzen dute, eta horiek hirigintza-plangintzako tresnetan duten aurreikuspenak egiturazko ebazpen izaera dauka. Sare horiek instalatzea eta hedatzea interes orokorreko obrak dira.

3. Herri-administrazioek onartutako araudiak, komunikazio elektronikoaren sare publikoak eta lurralde- edo hirigintza-plangintzako tresnak hedatzeari eragiten dionean, beren lurralde-eremuan komunikazio elektronikoaren sare-azpiegiturak hedatzea sustatzeko edo errazteko beharrezko diren xedapenak jaso beharko ditu (...)"

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikoa aitortzea Telefónica SAUK sustatutako proiektuari, Banda Zabalaren Belaunaldi Berriko Sareak zabaltzeko programaren barruan, zuntz optikoa instalatzeko aireko kanalizazioa eta gurutzatzea egiteko lehendik dagoen azpiegitura baten gainean, Okinan, Bernedoko lurzoru urbanizaezinean, bat etorriaz Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Bernedoko Udalari eta Telefónica SAUri Natura Ondarearen Zerbitzuak babes neurri edo neurri zuzentzaileei buruz emaniko txostena helaraztea.

Hirugarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatzeko udalaren baimen egokia lortzeko beharra, eta ez du aurretik epaitzen udalak eman behar duen ebazpenaren edukia.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio, nahi izanez gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 20

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

*JOSEAN GALERA CARRILLO*